

« Amikuzeko Erreken Lagunak » elkartearen kide zira, noiz sortu da elkarte hoi ?

Ofisialki, elkarte hori lauhogoi ta hamalauetan sortu da. Baina, egia esateko, duela hamabost urte, lagunzaileek lana hasi zuten.

Nolaz sortu da ? Zonbat kide zizte?

Lehen, AAPPMAren kideek erreketan amuarrain ttippiak ezartzen zituztelarik, erreka arrunt zikinak aurkitzen zituzten. Erreka abandonatuetan edo zikinetan, arrain arraultzeak ezartzea ez du balio: denak hiltzen kondenatua dira. Horrengatik eta bortxaz, garbitzea hautatu dute eta hasi dira lan hortan.

Gure elkartean, gu gutti gora hogoi bat gara. Baina igande goizero, erreken bazterretan hamar bat gara. Arrankariak, ehiztariak ta naturaren maitaleak gara, gazteak eta zaharrak, denok languzailleak gaude eta urria martxo arte lan egiten dugu. Patrick Jauregiberri lehendakaria dago, Frantxoa Cazenave gure idazkaria da eta Daniel Larregaray gure diruzaina.

Zer da elkartearen helburua?

Egia esateko, bi helburu dauzkagu. Lehen helburua, Bidouzeen eta Joyeuseen (ez dakigu bere izena euskaraz) ibaiadareen habiak (ala amuarrainen ohandak) erraberritzea dago. Eta bigarren helburua, ur kalitatea hobekitzea dago. Bat bestea gabe ez doa.

Erreken garbiketaz arduratzen zizte, zer estatuetan dira egun Amikuzeko errekek?

Gaur egun, errekek hobetzen ari dira, baina iragan, estatu abandonatuan ziren. Zuhaitz mostuak eta ardaskak uran zeudengatik, errekek lohitsuak ziren. Urak ustelak ziren, eta ez daiteke barnean bizitzarik.

Ura pasatzen zilegi den gure lana. Tapagailuak ta buxunak zapartatu, uhobiaren lohi kendu, erreketan argia utzi eta bixtan da, zikinak kendu eta hor badira ainitz.

Zer dira uran atxemaiten diren zikinak?

Erreketan, denetaik atxemaiten da. Ardaskak, plastikoak, autoaren bateriak eta errotak, jaz auto zahar bat ere aurkitu dugu! Badira ere mobiletak, kabale hilak (zakurrak, bildotxak, aratxe bat, urde ttippiak plastiko zakuetan eta ahatiak. Goiz batean, basahuntz bat eta basurde buru bat aurkitu ditugu). Ez dut segitzen, ahantzi dut; baina, gauza holakoak atxemaiten ditugu ardura.

Nola egiten dituzte garbiketa horiek?

Denak eskuz egiten ditugu. Ahiotz eta puskatu tresnekin. Ez dugu tresna handirik nahi, ezpondak zaindatzeko. Egurra mosten dugu eta erreken ondoan ezartzen ditugu, zikinak ere.

Jendeak, nola senditzen dituzte naturaren alde, zer dira beren eginmoldeak?

Nahiz eta hobekitu, zikinak botatzen dituzten ez da normala orain. Gaur egun ura urre urdina dagoen badakigu. Guk ikusten ditugun gauzetan, pentsatzen dugu jende batzuk uste dutela gure errekek direla zikin botatzeko tokiak.

Jendeeri buruz, nola ohartaraz edo kontzientziak iratzararaz?

Ohartatzeko, esan nezake igande goizetan gurekin erreken garbitzerat etortzea. Hor, denek ikusiko dute, zoin ederra den erreka baten bizi normalea. Eta eginmoldetan, deneri esan nezake ez denak botatzea erreketan. Badira zikintoki batzu, horientzat.

Bihar ari begira, elkarte horen lana?

Lehenik esan nezake, gaur egun erreka baten garbitzen ari garelarik, tokiko jendeak gelditzen direla ikusteko zer ari garen, eta heleketan izan ondoan, ohartzen dira erreka garbiak denen bizia dela.

Geroa liburuz, gure nahikeria da, lan horien segitzea eta ainitz arrain eta karramarro ikustea Amikuze Oztibarreko erreketan.